

TXANTXILAKO APARKALEKUA

280 kotxerentzako tokia izango du

Hustutze lanak hasi dituzte dagoeneko, zorua Iturralde kalearen paretsura jeisteko.



Txantxilla Santa Barbaratik begiratuta. Makina bat zerbitzu egin du bai!

Hernani erdigunean nekez aparkatu liteke aspaldian. Ordu eta egun jakinetan txiki gelditzen dira dauden aparkalekuak; astegunetan eguerdiz eta igande osoan esaterako, ez da kotxe gabeko espaloi muturrik. Erremedioa Txantxilako aparkaleku berria izango omen da, kaxkotik hurbil eta nahiko leku eskeintzen duena.

LANAK HASITA

Iturregi kalearen paretsura jaitsi nahi dute Txantxilla, eta ateratzen ari diren kamioikada lurrak Santa Barbarako harrobi zaharra betetzeko erabil-

tzen dituzte. Aparkalekuko sarrera Aristizabal kale bukaeran izango da seguru asko,

Autoentzako sarrera Aristizabal kalearen bukaeran izango du seguru asko.

Iturregi kalearekin bat egiten duen horretan. Oinez-koentzako lehengo eskailerak dauden horretan izango da sarbidea, baina, askoz eskailera

gutxiagorekin, noski.

280 AUTORENTZAT

Gutxi gorabera auto kopuru hau hartuko du Txantxilako aparkalenu berriak, eta argi eta guzti hornitua egongo da.

LEHENGO HILERRIA

Txantxilla futbol zelaia baino lehen hilerrria izan zen; 1926an pasa omen zituzten hezurak Tellerigaiñera. Zenbaiten kezka omen da hezurren bat agertuko ote den. Errepublikara garaiaren zezen plaza bihurtu zuten, eta 1950eko abuztuaren 27an inauguratu zen futbol zelaia. □

BITERI KULTUR ETXEA

Ikastaroetan matrikulatzeko epea luzatu egin du Biterik

Oraindik ikastaro batzuk betetzeko daude, eta ikusteko dago aterako diren edo ez.

BITERI kultur etxeak irailaren 18an zabaldu zuen aurtengo ikastaroetan izena emateko epea. Berez, gaur itxekoa bazen ere, datorren asteazkena arte luzatuko du epea. Orduan bilera egin eta ikusiko dute zein ikastaro atera eta zein ez. Oraingo, bete gabek daudenak honako hauek dira: heldu-

etan: dantza garaikidea, kermika, ahots teknika, saskigintza, sedazko ohialetan margo-tzea eta altzariak berritzeko ikastaroa. Gazteentzakoetan, berriz, antzerki-zirko-mimoa dago oraindik osatzeko.

Izena emateko, Biterin bertan goizeko bederatzietatik ordubatak arte. □

Iñaki Usabiaga apaiza Ordiziara joango da

14 urte egin ditu Hernanin eta igandean da joatekoa.

IÑAKI Usabiaga apaiz ordiziara bere jaioterrira itzuliko da datorren igandean. Hamalau urte egin ditu Hernaniko San Juan Bataiatzailea parrokan.

Iñaki Usabiaga baino urrutira-go Manuel Osa gazte apaiztu berria joango da datorren hilean. Lehen ere han ibilia da eta Afrikara joango da. □

ERRUGBIA LANDAREN

Ikastolen arteko Errugbi Txapelketa gaur Landaren

Harrobia lantzea dute helburu antolatzaileek.



Hernaniko errugbi jokalarik gazteak.

ERRUGBI elkarteak antolatuta, Elizatxo, Inmaculada, Langile eta Urumeako umeak Errugbi txapelketa dute gaur. Infantil mailako Torneo honetako bete du laugarren edizioa, eta aurten ere neska-mutil

koadrila ederra jarriko du errugbian jokatzen. Helburua "harrobia lantzea" da; "biltzeko aurrena erein egin behar da" diote. Partiduak Landaren izango dira, arratsaldeko lauetatik aurrera. □

Goizez eta arratsaldean,
haurrak eta helduak
Ikastaroak
Roiznahi hasteko aukera.
AURKI
Eskulanak/Arte Ederrak
Tlf.- 943 55 72 56
Elkano, 6. HERNANI

Laboreak
Haizea
Eskulanak egiten
irakasten dugu.
Gurutze puntua Bainika
Erdi puntua Enkage-Zirizko
Gakorratz lanak lanak
HAIZEA
Kortsetegia - Mihisidenda
Tlf.- 943 55 55 19
Kardaberaz 2, HERNANI

IBAI
TABERNA - JATETXEA
k l y c
Getaria kalea 15, DONOSTIA
Tel. 943 42 87 64

Lizeaga
taberna
Biktor Hugo 5
Tel 943 333082
HERNANI

MUEBLES HERNANI
Esposizio aldaketa.
Beherapen bereziak.
HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

OHIZKO PLENOA ATZO

Paradorrean ez da haur eskolarik izango

Eraikuntzak ez omen ditu haur eskolak eskatzen dituen baldintzak betetzen.

INAKI Arratibelen EAko zinegotziaren galderari erantzunez, Mila Apezteak Paradorrari buruzko gorabeherak argitu zituen, atzoko plenoan. Udalak haur eskola jartzeko asmoa zuen Paradorrean. Elizondo arkitektoari estudioa enkargatu, eta ondorioa hau izan da: lau solairuko egoitza ez da haurren erosotasunerako egokiena, solairutik solairura ibili beharko luketelako. Oraingo, beraz, Padarrora bere horretan geldituko da.



Atzoko Plenoan. Rekondo, Chica eta Fraile ezik, denak zeuden.

HERNANIKO ERROLDA
Erroldan okarren batzuk zeudela eta udalak zuzenketak agindu zituen. Azken datuak hauek dira: Hernanin 18.672 lagun bizi dira. Emakumezkoak 9.335; eta gizonezkoak, berriz, 9.337. Zuzenketa aho batez onartu zen.

ABOKATUA

Ekain Ruizen heriotzaren ondoren udalak hartutako erabakiak epaitegian daude. Udalak abokatuak hartzea proposatu du: Oskar Padura. Baiezkoa atera zen, PSE-EE kontra eta EA-EAJ abstenituta.

Arrantza ikastaroak gaztetxoentzat Txantxangorri

ELBI artifizialarekin arrantzan ikasi nahi duten gaztetxoak Txantxangorri dute aukera. Ikastaroa Axier Garaier gazteak emango du, bera espezialista izaki. Elbi artifizialarekin arrantzan ikasteko prozesu osoa ikasiko dute: elbi artifizialak egiten (oilo edo faisnaren lumeta eta hariarekin) eta Leizaranen bertan arituko dira arrantzan. Lizentzia ateratzeko dirua Txantxangorriren kontu.

BAZKIDE DEPORTIBO EGITEKO AUKERA

Nahi duten gazteak elkartearen bazkide deportibo egin litezke, 18 urte arte ordaindu beharrik gabe. Ikastaroak urriaren 6an hasiko dira; 18:30etatik 20:30etara. Izena emateko Txantxangorri bertan. □

Kiroldegiko taberna astebete barru zabalduko da

Lehiaketa egin da eta Jaione Raiak hartuko du.

EKAINAZ geroztik kiroldegiko taberna itxita egon da. Orain, egin beharreko tramiteak egin eta datorren asterako zabalik izatea espero dute kiroldegiko arduradunek.

Kontuak uste baino luzeago jo du, bi lehiaketa egin behar izan dituztelako; lehenbizikoan ez zen hautagairik azaldu. Bigarren, berriz, bi hautagai azaldu dira.

120.000 PEZETA

ETA GARBITSUNA

Horiek dira Jaione Raia jabe berriari jarritako bi baldintza nagusiak. Hainbesteko bat hilean eta solairua txukundu.

Hemendik aurrera, batzuk gustorago joango dira kiroldegira; eta beste batzuek, berriz, (waterpoloko ekipoak, adibidez) normal entrenatzeko moduan izango dira. □

DATORREN ASTEBURUKO PARTIDUAK

OSTIRALA

ERRUGBIA

Hernaniko ikastetxeren artean:
Landaren 16:00etan.
- Langile, Inmaculada, Elizatxo eta Urumea.

PELOTA

·Eskuz binaka afizionatuak:
Urrestillan 19:00etan
Gascon-Olaran - Azkoitia

LARUNBATA

FUTBOLA

·3.maila:
Zamudion 17:00etan.
Zamudio - Hernani
·Emakumezkoen liga:
Zubipen 12:00etan
Hernani - Zumaia

·Gazteen liga nazionala:
Zubipen 17:15etan

Hernani - Athletic

·Gateen ohorezko liga:
Zubipen 15:30etan

Hernani - Kostkas

·Kadeteen ohorezko liga:
Zubipen 10:30

Hernani - Zarautz

·Kadeteen 2.maila:
Zubipen 09:00etan

Hernani - Tolosa

·Haurren ohorezko maila:
Arrasaten 11:30etan

Arrasate - Hernani

PELOTA

·Paleta goman neska:
Amasan 15:30etan

Behar Zana; Lasa-Martinez

·Pala motza:
Zumarragan 16:00etan

Beloki; Ubarretxea-Galarza

IGANDEA

FUTBOLA

·Gorengo maila:
Mutrikun 16:30etan.

Mutriku - Hernani -

PELOTA

Kiroldegian 16:00etan

·Paleta goman neska jubenilak:
Patricia-Ana; Aitziber-Ixiar

·Eskuz binaka kadeteak

·Arrieta-Irardi; Zumaia

·Irazustabarrena-Leonet; Intxaunondo

·Eskuz binaka jubenilak:
Alvarez-San Sebastian;

Intxaunondo

·Paleta goma neska:
Orion 10:30

HITZ BITAN



Gaur Ereñotzun izango da zinea.

✓ ZINEA EREÑOTZUN

Momia filma botako dute gaur 21:30etan, Txirrita Eskolan. Ereñotzuko Kultur Taldeak, urtero bezala, aurten ere bi zine emanaldi antolatu ditu. Pelikulak pantaila haundian botako dituzte. Datorren emanaldia, hurrengo ostiralean izango da, leku eta ordu berean, baina, oraindik ez dute erabaki zein pelikula bota.

✓ PRESOK

Senideak elkarteak hileroko enkartelada egingo du gaur euskal preso politikoek bizi duten egoera salatzen. 20:00etan plazatik aterako dira eta handik manifestazioa egingo dute kaleetan barrena.

✓ MUSA

Gaur mus txapelketak izango dira Lierni, Antziola eta Lizarra tabernetan gaueko 11:00etan hasita. Hiru taberna hauetan ostiralero izaten da txapelketa.

Bihar, berriz, Elkano tabernan izango da, 16:30etan hasita. Taberna honetan larunbatero izaten da txapelketa irailetik uztaiera arte. Larunbatero txapeldun, bikote bat geratzen da, baina, saririk onenak urteko liga irabazten duen bikoteak eramaten ditu. Nagusiek esaten dutenez, gazteen artean afizioa asko jeitxi da garai batetik, lehen ez bezala gaur egun jende heldua bakarrik aritzen baita musean.

✓ ATXILOKETAK

35 urteko hernaniar bat astelehenean atxilotu zuten Lezon. J.T.D inzialak dituen gizonezkoak sei eta zazpi urteko bi neskatxa bortxatu zituen lehengo ostiralean. Barne sailaren arabera, Lezoko etxe baten atarian gazteetako bat ukitzen jardun zuen, eta bestea igogailuan eta makina gelan bortxatu zuen, berak eramanda. □

AGENDA

ERAKUSKETAK

Hernaniko Udalaletxea:
mende bat bizirik
Udaletxean bertan,
12:00-14:00
18:00-20:00.

Kuba orain hamar urte.

Argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

Juan Ramon Perez
Oreretarraren Kuadroak
Txema tabernan.

Argazki erakusketa
AEKri buruzkoa
Bodega tabernan.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

▶Taxiak: 943 550093
▶Udaltzaingoa: 943 333288
▶DYA: 943 464622
▶Autobusak 943 556662
▶Anbulatorioa: 943 557750

FARMAZIAK

▶Egunez: Irigoyen
Elkano, 2
☎ 943 552087
▶Gauetz: Ansa
Andoain. Ondarreta
☎ 943 591302